

Toti Martinez de Lezeak Mundakan girotu du 'L'Arratien taberna' eleberria

→ Egungo «jende normalaren» errealitatea du eszenatokia 'L'Arratien taberna' nobelak

→ Orainaldian idatzi du egileak, eta puri-purian diren gai ugari heldu die tabernaren aitzakian


Garbine Ubeda

DONOSTIA— Sukaldariak, mari-nelak, marinel baten alaba, dibortziatu berri den emakumea, espekulazioan bete-betea sartuta dagoen enpresaria, kotizazio urteak falta dituelako jubilatze-ira iritsi ezinik dabilen tabernaria edota azken horren senar arratziarra, Iparraldean lanean aritu zelako *L'Arratien* ezizena hartutakoa. Horiek eta beste hainbat dira eleberrira batutako pertsonaiak, Mundakako itsasertzean (Bizkaia) dagoen taberna zahar baten aitzakian. Egilearen esanetan, «normalak» omen dira denak; hots, bizimodu «normal» baten jabeak eta «aparteko gertaerarik» biziko ez dutenak. Halaber, «eleberrietan nagusi diren pertsonaia eder, gazte eta perfektuen antitesi» ere badira. 70 urte ingurukoak dira askotxo.

Haien arteko berriketez ere beste horrenbeste esan du Martinez de Lezeak: «Oso errealeak dira, oso aktualek, beren egunerokoari oso lotutako gaiak dira batzuk, eta beste batzuk, berriak, albiste-gietan entzuten dituzten kontuen gainekoak»; hala nola uda sasoi-ko turistaren inbasioa, migrazioa, etxebizitzaren arazoa, bizitokia herri-kanpo bilatu beharra, Urdaibaiko Guggenheim, jazarpena, festa eta Hegaztien Museoa, besteak beste. «Bizitza den bezalakoa» erretratatzan saiatu dela dio idazleak.

Eszenak atalen ordez

Martinez de Lezeak darabilen prosa «arina eta zorrotza» dela esan du Erein argitaletxeko kide Jose Agustin Iturrik: «Are ber-ritzailea ere». Prosa harago, egitura du bestelakoa liburua, eleberrietan ohikoak diren atalen ordez eszenak aurkituko baititu irakurleak eleberrian barrena. Hain zuzen, telebistarako gidoi bat izan zen jatorriz *L'Arratien taberna*. Hori azalduta, liburuari egotz dakiokeen generoaz mintzatu da egileak: «Idatziak generoaren arabera sailkatzea XX. mendearen bigarren erdial-



Toti Martinez de Lezea, Donostian. ANDONI CANELLADA / FOKU

dean sortutako moda da; hau zer den, ideiarik ere ez; izatekotan, errealismo errealista litzateke». Harentzat, literatura, besterik gabe, idaztea da, «zer den zehaztu behar izan gabe».

Eleberririk historikoen egile gisa definitu izan dutela eta, bere idazlanen zerrenda «askotariko» aldarrikatu du, baita eremu berrietara lotzeko duen grina ere: «Bizirik gaudela frogatu behar dugu, eta bizitzaren alderdi guztietan gainera; eta nik erronka hori, frogatu behar hori, neure buruarekin dut batez ere».

Etiketarik etiketa, historia beti izan du oso gustuko idazleak, baita mitologia ere, eta ildo horretatik jo zuen bere lehen liburu-eretan, 50 urte bete eta gero idazteari ekin zionean. Oraingoan ere keinu bat egin nahi izan die alor



«[Literatur generoaren aldetik] Eleberririk hau zer den, ideiarik ere ez; izatekotan, errealismo errealista litzateke»

TOTI MARTINEZ DE LEZEA
Idazlea

horiei, kontrabandistak, Ogoño edota sorginak ere liburuan barneratuta.

Iturrik adierazi du ahalegin berezia egin duela argitaletxeak, liburuak euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean plazaratu dadin. ●



Kristiina Poska orkestra zuzendaria. BERRIA

Izoztu aurreko unea

Marta Garcia

Paolo Malatesta eta Francesca de Rimini-aren arteko istorio tragikoan oinarrituta dago Maurice Maeterlinck idazle belgiarraren *Pelléas et Mélisande* antzerkia. Bertakoa hizkuntza sinbolista izaki, konpositore ugari-entzatzat inspirazio iturri izan da. Gabriel Faurek 1898an jaso zuen obra horren ekoizpen berri baterako musika idazteko enkargua, gerora orkestrarako suite bihurtu zuena maitasun istorioaren une gorenak nabarmenduz. Kristiina Poska estoniarraren gidaritzan zertxobait hotzak suertatu zen hasiera batean eta, hala ere, *Sicilienne* mugimendu eder bezain ezagunean orkestrako flauta eta harparen dotoreziaz gozatze-ko aukera egon zen.

Baiba Skride biolinista letoniarra batu zen ondoren, Robert Schumannen *Bioline- rako kontzertu* txundigarria interpretatzeko. Sei egune- tan idatzi zuen obra, 1853an. Jakina da bere osasun mentala ez zela egonkorra kontzertu hau idatzi zue- nean; izan ere, hilabete gutxi geroago Rin ibaira bota zuen bere burua, jazartzen omen zioten ahots eta deabrueta- tik ihesi. Akaso oso sinplista edo psikologista da musika- ren trataeran gogamen azto- ratuaren emaitza atzematea, baina egia da obran zehar badirela irregulartasunare- kiko eta itzalekiko joerak. Skridek gorputza eta norabi- dea eman zizkion horiei, bai hasierako handitasun azto- ratuan, bai *Langsam* liriko- tasun ez-tian. Nabarmenak, azken horretan, biolontxe-

loaren parte-hartze samurra eta haren trinkotasuna *pianissimo* pasarteetan.

Denbora luzez aritu zen Sibelius bere bosgarren sinfonia idazten eta berri- kusten; prozesu malkartsua izan zen, gainera, eta lana «ezinezkoa» izango zela pentsatzera ere iritsi zen. Obra konplexua da, batez ere berezitasun formalak eta esperimentazioa direla eta. Baina bada, aldi berean, Poskaren batutak —erreper- torio honetan aditua— ondo azpimarratu zuen batasun zentzua, musikariren jardue- ra finak lagunduta: haizeak *molto moderato*-an, tronpak *Allegro molto*-an, beltzargen isla, *tutti*-an azken kaden- tziaren akorde bakanduetara iritsi arte. Negua gerturatu zen, baina belarriak oraindik bero. ●

KRIKITA Musika

Euskadiko Orkestra

Zuzendaria: Kristiina Poska. Biolina: Baiba Skride. Egitaraua: G. Faureren *Pelléas et Mélisande* suitea, R. Schumannen *Biolin eta orkestrako kontzertu* eta J. Sibeliusen 5. sinfonia. Lekua: Donostia-ko Kursaal auditoriuma. Eguna: azaroaren 21a.